Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 412

Urtarrilak 1, 2022

Gabon giroa Irungo kaleetara itzuli da

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 Eguberrietako argazkiak
6 Ibai Aizpurua
7 Irungo kaleak
8 Kirolak: Santiagotarrak
9 Kirolak: Bidasoa XXI
10 Javier Sagarzazu
11 Ttaurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Galarza Costura
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

29128

2

52409

1922ko urtarrilaren 1ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak urte berriaren hasiera dela eta, Irunen albiste diren gertaerak biltzen ditu. Aldizkari hasierako idatzian, 1921. urtearen amaiera aipatzearekin batera, irakurleei aurreko urtean zehar "El Bidasoa" aldizkariaren itxiera saihesteko egindako ahaleginak eskertzen zaizkie. Jarraian, aduanako langileen eta aduanako ikuskariaren arteko gatazkaren azken gertakariak kontatzen dira, 1921. urtearekin arazoak amaitu ez zirela argi utziz. Aldizkariko Yole kolaboratzaileak, berriz, bere haurtzaroko oroitzapenak islatzen ditu, haurrei amek senti dezaketen harrotasunak duen garrantzia helarazteko.

G. Echeverriak, berriz, urte berriak ekar ditzakeen gauza onak eta txarrak aztertzen ditu bere testuan. Gerran hildakoak gogoratzeaz gainera, 1922. urteari bakea eskatzen dio itxaropentsu. Aldizkariko hiru zutabe betetzen dituen kirol kronika luzean hainbat gai aipatzen dira. Batetik, Real Unionek Bartzelonan jokatutako partiduaren emaitzak azaltzeko "El Spor" egunkarian argitaratutako artikulua erabili da. Bestetik, Amuteko zelaian egun horretan bertan jokatutako errugbi partiduaren berri ematen da. Ondoren, 1921eko "El Bidasoa" aldizkariaren azkeneko zenbakian irakurleei Gabonak zoriontzea ahazteagatik barkamena eskatzen dute aldizkariko erredaktore eta kolaboratzaileek, 1922. urterako eskariak argitaratzearekin batera. Bigarren orrialdearen amaieran San Estanislao ikastetxeko Guillermo maisua omentzeko asmoaren berri ematen da, oraindik omenaldia noiz eta nola egingo den argitzeko badago ere.

Hirugarren orrialdearen hasieran, Adrián Picave y Leguia jaunaren heriotza dela eta, hirian antolatutako ehorzketa nolakoa izan zen eta hileta ekitaldian nortzuk parte hartu zuten kontatzen da. Aldizkariaren aurreko zenbakian esne eskasia aipatu moduan, zenbaki honetan arrautzen prezio garestiaz eztabaidatzen da. Azkenik, aldizkaria amaitu aurretik, irakurleek "Notas municipales" eta "Noticias" atal aski ezagunak aurkituko dituzte.

Argazkiak:

29128: Irungo San Estanislao ikastetxeko ikasle taldea beren irakaslearekin 1886. urtean.

2: José Ramón Agirrechek alkatea eta beste agintari batzuk gizarte-laguntza zerbitzuko haurrei arropa eta jostailuak banatzen, Errege Magoen eguna dela eta 1940ko hamarkadan.

52409: Ikuspegi panoramikoa; lehen planoan, Behobiako auzoa eta Nazioarteko Zubia ikusten direlarik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Artaleku eta Azken Portu kiroldegietako matrikula doakoa izango da urtarrilaren 21era arte

Irungo Udaleko Kirol Arloak jakinarazi duenez, Artaleku eta Azken Portu kiroldegiek eskaintza berezi bat aterako dute abonatu izan nahi dutenentzat. Horrela, kiroldegiko abonamenduan abenduaren 27tik urtarrilaren 21era bitartean alta hartzen duten erabiltzaile guztiek % 100eko deskontua izango dute matrikulan.

Eskaintza horri esker, matrikula ordaintzen duten abonamenduei dagokienez, adibidez, guraso abonatu bat duten haurrek 43,16 euro aurreztuko dituzte, eta helduek, 77,65 euro ere. Alegia, abonatu berriek matrikula aurreztuko dute, eta beren abonamendu motari dagokion hiruhilekoko kuota bakarrik ordaindu beharko dute.

Irun Txartela

Altak udal webguneko egoitza elektronikoaren bidez tramitatu behar dira, Irun Txartela (B@KQ) erabiliz, eta titularrek beren izenean zein ordezkatzen dituzten pertsonen izenean har ditzakete.

Abonatu izatearen abantailen artean honako hauek aipatuko genituzke, ikastaroen izen ematean lehentasuna eta tokia denboraldiaren amaiera arte gordetzea, prezio murriztuak ikastaro eta fisioterapia zerbitzuan, elikapen zerbitzuan doako lehenengo kontsulta, astean ordubete doan frontoi, trinkete eta squashean, eta abar.

Irunek 2 milioi euro jasoko ditu Europako funtsetatik Oiassoko termak berreskuratzeko

Irunek 2.000.000 euro jasoko ditu Europako funtsetatik Oiassoko termak berreskuratzeko proiektua gauzatzeko. Hala jakinarazi zuen Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasunerako Planaren aurkezpenean. Ekitaldian Miguel Ángel Páez lehen alkateorde eta Ogasuneko ordezkaria izan zen, laguntza horiek jasoko dituzten gainerako proiektuen ordezkariekin batera.

Irungo Udalak Europako finantzaketa-funtsen deialdira Oiassoko termak berreskuratu eta horien balioa aitortzeko proiektua aurkeztu zuen. Funtsak 50.000 biztanletik gorako udalerriei zuzenduta zeuden, eta 2 milioi euro inguruko proiektuen kostuaren % 100 finantzatzeko helburua zuten. Proiektuen exekuzio-epea hiru urtekoa da (2022-24). Azaroan sailburua Oiasso museoan izan zen alkatearekin eta Miguel Ángel Páez Ogasuneko ordezkariarekin batera, aurkeztutako proposamenaren xehetasunak bertatik bertara ezagutzeko.

Bisitatzeko moduko termak

Aurkeztutako proiektuaren xedea da Oiassoko termak berreskuratzea eta bisitatzeko moduan jartzea, bai eta museoa digitalizatzea ere. Horrez gain, beste zenbait neurri ere biltzen ditu, Irun turismo helmuga adimenduna izan dadin (digitalizazioa, seinaleak, komunikazioa eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak). Aurrekontua, guztira, bi milioi euro ingurukoa da.
Oiassoko terma erromatarrak hiriko ondare arkeologikoaren funtsezko pieza bat dira. Azken urteetan, estalita egon dira, museoaren ondoan, eta proiektu honekin berreskuratu eta museoan integratu nahi dira, bisitatzeko moduko gune bezala. Jarduketa honen bidez, hondakin arkeologikoak eta ondarea mantenduko dira, eta turismo-helmugaren eskaintzari gehitu, hala bisitarientzat nola bertakoentzat, esperientzia errepikaezin baten bidez. Ekimen honen bidez, balio historiko eta turistiko handiko puntu enblematiko bat osatuko da, turismoa erakartzeko gaitasuna duena, gainera. Horrez gain, baliabidea hobetuko da, jasangarritasunari eta berezitasunari dagokionez. Jarduketak kalitatezko turismo lehiakor eta dinamizatzailea sustatuko du.

Termak Oiasso museoan eta hiriko gainerako baliabideetan integratuta, eskaintza dibertsifikatuko dugu, eta horrek potentzial handiagoa emango die hiriari eta turismoaren sektore osoari.

Jarduera nagusia terma erromatarrak estaliko dituen eraikina birgaitzea izango da, Irungo Oiasso museoaren ondoan. Arreta berezia emango zaio energia-eraginkortasunari eta zarata eta argi bidezko kutsadura murrizteari, baliabidea eta esperientzia turistikoa hobetzeko (inguratzaile termikoa, LED argiak, klimatizazio eraginkorra, aireztatze-ekipamenduen isolamendu akustikoa...).

José Antonio Santano alkatea oso pozik agertu da albistearekin eta, esan duenez, "bultzada ekonomiko handia da, eta dagoeneko enblematikoa eta ezin bereziagoa den leku batean inbertituko da". Proiektuari esker, balio historiko eta turistiko handiko eremua indartuko dela azaldu du alkateak, Irun erromatarraren profila indartzeko beste urrats bat emanez. José Antonio Santanoren hitzetan profil horri esker "helmuga erakargarri eta berezia gara, eta bisitariak erakartzen jarraituko dugu, bai eta ekonomia dinamizatzen ere".

Irunek aurkeztutakoa izan da Euskadi guztian funts horiek jasoko dituen 11 proiektuetako bat eta, Donostiakoarekin batera, Gipuzkoako bakarra.

Beste lerro batzuk

Udalak hilabeteak daramatza lanean Europako ezohiko funtsen bidez irekitako finantzaketa lerroetara proiektuak aurkezteko.

Honako hau da proiektu jakin baterako iritsiko den lehen finantzaketa, baina gogoan izan behar da beste gai batzuekin lotutako proiektuak ere aurkeztu direla, hala nola digitalizazio komertziala, garraio publikoaren elektrifikazioa edo emisio gutxiko eremuaren zabalpena. Lanean ari gara, gainera, hiriarentzako irismen luzeko beste proiektu batzuetan, hala nola eraikin publikoen eta etxebizitzen eta auzoen birgaitzea sustatzen. Orain artean, Irungo Udalak laguntzen onuradun izateko interesa adierazi du honako proiektu hauek gauzatzeko: Aduana zaharraren eraikina berreskuratzea, Emigrazioaren eraikinaren barnealdea birgaitzea eta Iñigo Loiolakoaren hiri-eremua birgaitzea.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irun inoiz ikusi gabeko Gabonen ekuatorean dago

2021. urtearen amaieran eta 2022. urtearen hasieran, Irun Eguberrien ospakizunetan murgilduta dago. Aurtengoan, pandemiaren eragina tarteko, hiria Gabon ezohiko batzuk ospatu ahal izateko egokitu behar izan da berriro. Covid-19aren intzidentzia tasa altuek eraginda, San Tomas eguneko ospakizunak bertan behera geratu ziren.

Hala ere, aurten Olentzerok Irungo kaleak zeharkatzeko aukera izan du eta datozen egunetan Errege Magoek berdina egin ahal izatea espero da. Bien bitartean, hiria girotzeko hainbat ekintza egin dira Irunen. Esaterako, Ficoba izotz pistan, Sarjia parkeko Eguberrietako herrixkan, Zabaltza plazako merkatuan, Pio XIIko Txirrista erraldoian eta hiriko beste hainbat kale eta auzoetan. Izan ere, osasun testuinguru bereziak baldintzatuta bada ere, Irun Eguberrietako hiriburu bihurtu nahi izan du Irungo Udalak, hiriko elkarte eta entitateen laguntzarekin.

Azken egunetan egindako ekintzen argazkiak jarraian ikusi ditzakezue. Dena den, Gabonak amaitu ez direnez, datozen egunetan egitekoak diren hainbat ekintza ere proposatzen dizkizuegu Irunero aldizkariaren 15. orrialdean aurkituko duzuen agendan. Gaur egungo egoerak eskatzen duen ardura eta zuhurtzia ahaztu gabe, Irunero aldizkariak jai zoriontsuak opa dizkizue.

HAMAIKA
- Erreforma integralak
- Diseinua eta interiorismoa
- Altzariak eta ekipamendua
San Markos Plaza 1, Hondarribia + 34 943 64 64 12 www.hamaika.com

Ibai Aizpurua, bideojoko sortzailea:

“Bideojoko bat garatzeko beharrezkoa da jakintza asko uztartzea”

Ibai Aizpuruak Barraka jokoarekin Durangoko Azokako IV. Sormen Beka irabazi du. Irundarrak Barraka proiektua garatzeko urtebeteko epea izango du. Euskarazko bideojokoa izateaz gainera, adin guztietarako aproposa izatea nahi du Aizpuruak. Ibai Aizpurua oso eskertuta azaldu da Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak emandako aukera honengatik.

Zergatik erabaki zenuen Barraka proiektua Sormen Bekara aurkeztea?
Egia esan, askotan bekaren bat irabazi izan duten proiektuak ez zaizkit gehiegi gustatu izan. Sare sozialetan deialdia ikusi nuen eta, kexatu ordez, nire proiektua aurkeztea erabaki nuen. Proiektua aurkeztu eta lehen filtroa pasa ostean, proiektua defendatzera joan behar izan nintzen. Egun batetik bestera deitu zidaten eta proiektuaren irabazlea nintzela esan zidaten, eta oraindik asimilatzen ari naiz.

Behin irabazlea zarela jakinda, nola begiratzen diozu proiektuari?
Garaipenaren albistea ezin hobeto jaso dut. Ezin naiz kexatu. Beka hau irabazi dudalako eta horrek ate asko ireki dizkidalako. Orain arte neukan lana albo batera utzi dut urtebetez eta urte oso bat emango dut gustuko dudana egiten, hau da, bideojokoak sortzen.

Zergatik aukeratu duzu barraken testuingurua proiektua kokatzeko?
Ideia asko nahastu ditut proiektua sortzeko. Alde batetik, aurten interes berezia izan dut parke tematikoengatik. Era berean, aspaldidik esplorazio joko bat sortzeko gogoak neuzkan. Parke tematiko baten esplorazio joko bat sortzea pentsatu nuen, baina euskaldunentzat parke tematikoak urrun samar daudela iruditu zitzaidan. Hurbilagoa eta antzekoa izan zitekeen zerbaiten bila, barrakez gogoratu nintzen. Azken batean, herri guztietatik igarotzen dira barrakak eta guztiok dauzkagu gure bizitzan zehar barrakekin loturiko oroitzapenak.

Aurretik hemen inguruan girotutako beste bideojokoren bat sortu izan duzu?
Orain arte bideojoko batzuk nire kabuz sortu izan ditut. Iñaki Vazquez, Gonzalo Sardon eta nik Zomorro Studio sortu genuen. Hiruren artean azken urteetan hainbat bideojoko sortu izan ditugu. Barraka nik egindako lehen bideojoko handi samarra izango da, izan ere, normalean egiten ditugunak ez dira oso handiak. Esaterako, Gonzaloren urtebetetzerako Dumboa izeneko joko bat sortu genuen. Bertan Dumboa auzoa gauez ikusten da, esplorazio joko bat da eta helburua Legoko piezak aurkitzea da. Bestetik, urteak daramatzat proiektu handiago bat garatzen, Gillotine izenekoa. Joko honen atzealdean Aiako Harria ikusi daiteke. Ideia da Euskal Herrian kokatzea eta euskal folklorea abiapuntutzat hartzea. Aipatutako joko guzti hauek Zomorro Estudioren webgunean topatu ditzakezue.

Ze motako bideojokoa da barraka?
Barraka oraingoz esplorazio eta abenturazko joko bat izango da. Jokoa garatzeko urtebete daukat eta baldintzetako bat jokoa zerotik hastea da, hau da, oraindik garatzeko egotea. Beraz, proiektua urtebete horretan hasi eta bukatu behar da. Orain arte froga bisual ezberdinak egin ditut, baina momentuz ez dut ezta jokoaren prototipoa ere sortu. Urtebete honetan probak egingo ditut mekanika ezberdinekin. Hainbat ideia dauzkat jada, baina nahiago dut ezer ez aurreratzea.

Zer behar da bideojoko bat arrakastatsua izan dadin?
Bideojokoen mundua egun nahiko konplikatua da, dena oso masifikatuta baitago. Merkatuan eskaintza oso zabala da, bai enpresa oso handi eta txikien artean. Hortaz, konplikatua da atentzioa erakartzea. Grafikoki bideojokoa erakargarria egiten ahaleginduko naiz, baina ikusiko dugu zer gertatuko den.

Zergatik erabaki duzu bideojokoa euskaraz egitea?
Bideojokoa hasiera batean euskaraz egongo da. Jokoak izango dituen testuak euskaraz egongo dira, nahiz eta testu gutxi duen jokoa izatea pentsatu dudan. Behin jokoa euskaraz aterata, jokoa beste hizkuntzetara itzuli ahal izatea espero dut, ahalik eta jende gehienak izan dezan jokatzeko aukera.

Zein jokalari motarentzat dago pentsatuta?
Barraka edozein adineko jokalarientzat sortutako jokoa izatea nahi dut. Hau da, bai haurrek zein helduek jokatu ahal izateko zerbait egin nahi dut.

Nolakoa da bideojokoen sormen prozesua?
Bideojoko bat garatzeko beharrezkoa da jakintza asko uztartzea. Programatzen, animatzen, marrazten, pantailak diseinatzen, soinuak eta musika egiten jakin behar da, beste gauza batzuen artean. Nik Barraka bideojokoaren zati handiena berez nik bakarrik egingo dut eta musikarekin Gonzalo Sardonek lagunduko dit. Prozesua nolakoa den? Ba normalean ideiak elkartzea da, besterik ez. Hasieran ideia oso zabal bat duzu eta gero guzti hori pixkanaka eraldatzen joan behar zara. Askotan bidean gauzak moztu behar dira, hori ere egia da. Hasiera batean ideia asko dauzkazu, baina gero gauzak kentzen joan behar zara. Nire ustez edozein proiektutan zer sartu behar ez den jakitea da garrantzitsuena.

Urtebete nahikoa da maila honetako proiektu bat garatzeko?
Berez bai, baina bideojoko txiki bat sortzeko. Azken batean, errealista izan behar naiz eta nik ez dut ziurtatzen 5, 8 edo 100 orduko joko bat izango denik. Joko polit eta laburra izango da.

Behin amaituta, non eskuratu ahalko da?
Ideia jokoa salgai jartzea izango da. Agian deskargarako doako froga bat prestatuko dut, baina helburua prezio merke batean saltzea izango da.

Etorkizunean soilik bideojokoen sorkuntzaz bizitzea gustatuko litzaizuke?
Gustatuko litzaidake hau izatea bide luze baten lehenengo pausua. Egia esan, Durangoko azokako bekaz gain, Egile Saria izeneko beste beka txikiago bat jaso dut. Beka hori Arroxa izeneko proiektu bat garatzeko erabiliko dut. Joko hori jada jokagarri dago Zomorro Studioren webgunean, nahiz eta beka hori proiektua borobiltzeko erabiliko dudan. Datorren urtean zehar behintzat nahiko lan izango dut, gero ikusiko dugu zer gertatzen den.

Irungo kaleen bilduma eguneratu dute Agustin Morate eta José Monjek



Agustin Moratek eta José Monjek “Las calles de Irun. Breve historia” izeneko liburua kaleratu berri dute. Liburuak hiriko kaleen izenak, argazkiak, informazioa eta bitxikeriak biltzen ditu. Argitalpena hiriko kiosko eta liburutegietan eskuratu daiteke jada. Agustin Moratek liburuaren ekoizpen prozesua nolakoa izan den azaldu du.

Zergatik erabaki duzue liburu hau berrargitaratzea?
Egia esan, ez da berrargitalpen bat. José Monjek duela 25 urte argitaratu zuen liburu hau, eta, jakina, denbora guzti horren ondoren, kale berriak daude eta Josék testu batzuk osatu nahi zituen. José Irungo artxibora egindako txango anitzetatik ezagutzen dut. Egun batean, bere etxean aurkeztu, zirriborroa utzi, eta proiektuarekin aurrera jarraitzera animatu ninduen. Pixkanaka-pixkanaka hasi ginen lanean, eta ia bi urte eman ditugu. Argazkiak aukeratzeko denbora asko behar izan dugu, liburua 1.200 argazki baino gehiagok osatzen baitute. Kale bakoitzaren aurretik egungo argazki bat dago, baina berezitasun batekin, argazki horietatik ezabatu baititugu autoak eta zaborrontziak. Lan hori hartu dugu kale asko elementu horiengatik ia erabat estaltzen zituztelako. Uste dut emaitza duina dela eta oso erabilgarria izan daitekeela kontsulta-liburu gisa.

Aurreko liburua 1996. urtean argitaratu zen. Ordutik Irun asko aldatu da?
Kaleak ez dira hainbeste aldatu, baina kale berriak gehitu dira. Liburu berri honetan ia 40 edo 50 kale berri egongo dira. Hala ere, emakumeei eskainitako 9 kale baino ez daude eta, gainera, kale horietako askok izen generikoak dituzte. Irungo emakumeen izena daramaten hiru kale baino ez daude: Dolores Salis, Prudencia Arbide eta Maritxu Anatol. Gero, Fabiola erregina edo Eulalia infanta izeneko bi kale daude. Azkenik, badira izen generikoak dituzten kaleak, hala nola Poxpologile, Lavanderas, Iñude eta abar, baina ez daude pertsona jakin batzuei eskainiak.

Irungo kale guztiak eta haien bitxikeriak liburu bakar batean biltzea erraza izan da?
Liburuak ia 700 orrialde ditu eta pisu handia du. Lehengoan Josérekin pisatu nuen eta kilo 1 eta 400 gramo pisatzen duela esan dezakegu. Nik uste dut liburuak pisuz erosi beharko liratekeela, lehen apalategiak edertzeko kolorearen arabera erosten ziren bezala. Ez da zaila izan liburua idaztea. Testuak sortzeko askotan Auñamendi entziklopedia erabili izan dugu pertsonaia interesgarriren bat aurkitu dugunean. Gaur egungoak ez diren argazkiak lortzeko Udal Artxibora jo dugu. Artxiboaren bidez lortutako argazkiak erreferentzia-zenbakiarekin batera daude, liburuan ikustean norbaitek argazki horietara zuzenean iritsi nahiko balu.

Argazkiak laguntza handikoak dira aipatutako kaleak non dauden kokatzeko?
Joséren liburuak ez zuen argazkirik. Hala ere, orain kale, plaza edo etorbide bakoitza argazki batekin agertzen da, hau da, azken bi urteetan ateratakoa. Hori guztia pertsonak eta autoak kenduz, bizikletak bakarrik utziz. Palmera Monteroren aretoan egin genuen aurkezpenean udal ordezkari bat oso pozik jarri zen autorik gabeko Irun bat ikustean.

Zeintzuk dira azken urtean zehar Irunen gehien garatu diren auzoak?
Jakina, gehien aldatu den eremua Landetxa-Bentetako auzoa da. Urte hauetan, inguru horretan etxe berri asko eraiki dira eta kale berriak sortu dira. Adibidez, izena ere jarri diote suhiltzaileen biribilguneari, lehen ez baitzuen. Industrialde batzuetako kaleei ere izena jarri zaie. Horrela, izen toponimo edo izen orokorrago gisa erabiltzeko aprobetxatu da.

Zergatik aukeratu duzue azalerako Kale Nagusiko argazki bat?
Oso irudi adierazgarria dela uste dugu, eta gainerakoekin bezala, udal artxibotik atera dugu. Lagun bat haserretu egin zait Anakaren argazki bat azalean ez jartzeagatik, Anakako kofradiako kidea naizelako. Argazki polita iruditzen zait, Irun aurreko mendean zer zen erakusten duena.

Liburua kaleratu aurretik, informazio guztia Anakako Kofradiako webgune eta sare sozialetan partekatu duzue?
Hasiera batean, asmoa ez zen liburu bat argitaratzea, baina informazioa bilatzen hasi eta proiektua handitzen ari zela ikusi ahala, José jakinaren gainean jartzea erabaki nuen. Dena lehenagotik sare sozialen bidez argitaratzea oso ondo etorri zaigu, horrela jendea gurekin harremanetan jarri baita zuzenketa txikiak egiteko edo informazio berria emateko. Horri esker, dena paperean argitaratu aurretik akatsak zuzendu ahal izan ditugu. Gainera, liburuan sartu ahal izan ditugun argazki berriak ere bidali dizkigute. Hala ere, ez da inoiz liburuaren zuzenketa amaitzen, beti geratzen baita zerbait gehitzeko edo aldatzeko.

Non eskuratu daiteke liburua?
Badiolan Anakako enpresa bat da, inguruko kioskoetan prentsa eta liburuekin lan egiten duena. Horien bidez, Irun eta Hondarribiko salmenta-gune, kiosko eta liburu-denda guztietara iritsi ahal izango gara. Liburua egun batzuetako atzerapenarekin iritsi da, koadernatzailearekin arazoak izan ditugulako, baina abenduaren 18az geroztik liburua salgai dagoela uste dut.

Liburuaren edukia irundarrentzat erakargarria izan daitekeela uste duzu?
Ez dakit zein den liburua oraingoz izaten ari den arrakasta, argitaratu dugunetik astebete baino ez baita igaro. Egia da gaia Facebooken landu dugula eta gaian interes handia zuen jendea zegoela. Lan horri esker, jendeak bere kalearen izena edo kaleari izena ematen diona ezagutu ahal izan du.

Banku mugikorreko arraun denboraldiaren hasiera Santiagotarrak elkartearentzat

Euskal Ligarako puntuagarriak izango diren hurrengo jaitsierak urtarrilaren 15ean eta 29an egingo dira

Abenduaren 18an Santiagotarrak Kirol Elkarteko aulki mugikorreko arraunlariek denboraldi berria hasi zuten. Gainera, lehen jaitsiera eremu ezagunean jokatu zuten, Bidasoa ibaia jaitsi ostean, Hondarribiko puntaleraino iritsi baitziren. Denboraldiko lehen jaitsiera izan arren, txapelketak hainbat garaipen utzi zituen klub irundarrean.

5 urte igaro dira azkenekoz Aulki Mugikorreko Gipuzkoako Ligako Lehen Jaitsiera Bidasoa ibaian egin zenetik. Bidasoako jaitsieran Gipuzkoako hainbat klubek parte hartu zuten eta, zehazki, Santiagotarrak Kirol Elkarteko aulki mugikorreko 56 kirolarik parte hartu zuten 22 ontzi osatuz. Parte-hartzaile irundarrek 8 garaipen lortu zituzten. Gizonezko Jubenilak 8koan Jon Ander Penas, Ander Ibargoyen, Xabi Etxebeste, Alex Conde, Pablo Martinez Lacar, Hugo Rodriguez, Beñat Martinez, Ibai Otxoa eta Bittor Bazterra lemazaina izan ziren garaipena lortzen lehenak. Ostean, Beñat Fernandez, Bittor Lekuona, Ander Aramendi eta Julen Villafranca lemazainik gabeko 4 gizonezko kadeteak eta Jone Laguardia, Leire Navaridas, Maria Martinez Lacar eta Maialen Bengoetxea emakume kadeteak 4 scull-ean garaile izan ziren. Laukoteekin jarraituz, Mikel Laguardia, Markel Irigoyen, Adour Illarramendi eta Inhar Romano 4 sculleko mutilak ere beren kategoria irabazi zuten.

Talde txikiagoetan, berriz, Luken Solozabal eta Julen Beltran gizonezkoen kadete scull bikoitzean nagusitu ziren. Gizonezkoen kadete skiff-ean Jokin Antunez izan zen irabazle eta emakumezkoen infantil skiff-ean Maialen Zapiain. Azkenik, emakumezko jubenil scull bikoitzean Ane Calvok eta Maitane Zapirainek irabazi zuten.

Banku mugikorreko arraun-ligaren lehen jaitsiera eguerdiko 14:00etan hasi zen. Infantil eta kadete mailako arraunlariek 4.000 metroko erloju kontrakoa jokatu zuten. Minutu bateko tartea utzita Behobiako zubitik irten eta Hondarribiko Puntalera iritsi ziren. Jubenilak eta seniorrak berriz, 6.000 metroko erlojuz kontrakoa jokatu zuten, punttetatik irten eta Hondarribiko Puntaleraino iritsiz.

Denboraldi berriaren hasiera

Iñaki Zabaleta Santiagotarrak klubeko arraunlari infantil eta kadeteen entrenatzaile aizatea zagain, klub irundarreko ordezkaria da Arrauneko Euskal Federazioaren aurrean. Zabaletak azaldu duenez, arraunlarien denboraldia, arraun olinpikoa praktikatzen dutenen kasuan, irailaren bukaeran hasi ohi da normalean, orduan egiten baitira denboraldiko lehen entrenamenduak. “Abendura arte kirolariak entrenamenduetan murgildurik ibili ohi dira eta ez dute beste helbururik izaten”, azaldu du arraunlari gazteen entrenatzaileak. Arraunketa txapelketak, berriz, abendutik aurrera hasten dira. “Lehen txapelketa horiek denboraldi hasierakoak direnez, kirolariei ez zaie aparteko emaitzarik eskatzen, uretan kilometroak egiteko aitzakia bat baino ez dira eta gauzak probatzeko momentua dira, besterik ez”, gaineratu du Iñaki Zabaletak. Gainera, azkeneko urtea Covid-19arengatik guztiz baldintzatuta egon dela gogoratu du entrenatzaileak. Denboraldiko lehen txapelketa pandemiaren 6. olatuaren erdian jokatu bada ere, txapelketa normaltasun osoz jokatu zela azaldu du Zabaletak. Izan ere, aurreko urtean jokatutako hainbat txapelketetan ikusleek ez zuten txapelketaz gozatzeko aukerarik izan, baina oraingoan ez zegoen horrelako murrizketarik indarrean.

Arrauna aire librean praktikatzen den kirola denez, beste kirolekin alderatuta hainbat abantaila dauzka. Izan ere, Covid-19a dela eta hartutako neurriek ez diete arraunlariei hainbeste eragiten. “Hala ere, eguraldi txarrarekin, euriarekin eta hotzarekin kirola praktikatzea tokatzen zaigu”, erantsi du Zabaletak. Beraz, egoera honetan arraunak bere alde on eta txarrak dituela argi dago. Esaterako, gimnasioan egiten den lana guztiz baldintzatuta dago murriztapen neurrien ondorioz eta klub irundarreko arraunlariak egoera berri honetara egokitu behar izan dira. “Gimnasioan ematen dugun denboran arduraz jokatzeko neurri guztiak hartzen ditugu eta pandemiaren aurretik egiten genituen hainbat gauza egiteari utzi behar izan diogu”, azaldu du Iñaki Zabaletak.

Denboraldi berrirako helburuez galdetuta, Iñaki Zabaletak honakoa azaldu du: “gure helburua talde bezala garatzen jarraitzea izango da”. Horretarako arraunera ahalik eta jende gehien erakarri nahi dute eta, ez hori bakarrik, kirolean inplikatzen den jendea izatea nahi dute. Adibidez, urtero arazo berdinari aurre egin behar izaten diote. Unibertsitatean dabiltzan edo ikasketetan zentratuta dauden gazte askok arrauna uzteko erabakia hartzen dute eta udaran, ikasturtea amaitu ostean, berriro kirola egiten hastea erabakitzen dute. Hain zuzen ere, egoera horretan egon ohi dira 11 urtetik gorako eta 20 urte baino gehiago dauzkaten arraunlari asko, beraz, helburua taldea egonkortzea eta hobetzea izango da.

Banakako helburuei dagokienez, berriz, Iñaki Zabaletak azaldu du Naroa Zubimendi Sevillan Espainiako Selekzioarekin kontzentratuta dagoela entrenatzen eta Aitzpea Gonzalez, berriz, Banyolesen. “Haien helburua udan nazioarteko txapelketetan Espainiako Selekzioarekin arraun egin ahal izatea da”, adierazi du entrenatzaileak. Bien bitartean, horien atzetik Santiagotarretako arrauneko sekzioko beste kirolariren bat sartzeko aukerarik badute sekulakoa izango dela aurreratu du.

Hurrengo jaitsierak urtarrilaren 15ean eta 29an egingo dira eta, Bidasoa ibaian egindako lehen jaitsierarekin batera, guztiak Arrauneko Euskal Federazioak antolatzen duen Jaitsieren Euskal Ligarako puntuagarriak izango dira. Horietan Santiagotarretako kirolariek haien onena ematen jarraitzeko eta ligako sailkapenerako puntu berriak lortzen jarraitzeko aukera izango dute.

Marisol Lopetegui, Bidasoa XXIeko administratiboa:

“Hau familia-klub bat da, ez dugu elkar engainatuko”

Marisol Lopetegui Bidasoa XXI klubeko administrazioaz arduratzen da, bere egunerokotasunean aldi berean zeregin ugari uztartzen dituelarik. Hamazazpi urte daramatza egiteko honetan inplikaturik eta denbora gutti horretan igeriketa klubaren bilakaera gertutik jarraitzeko aukera izan du. Marisol Lopeteguik kluba etorkizuneko erronken aurrean nola ikusten duen azaldu du.

Zein da Bidasoa XXI klubaren barruan duzun eginkizuna?
Nire eginkizuna klubean era askotakoa da. Kuotak kobratzeaz arduratzen naiz, kirolarien jantzi guztiak kudeatzen ditut eta lehiaketetara joateko bidaiak antolatzen ditut, beti aukera ekonomikoena aurkitzen saiatuz. Orain, adibidez, Gabonetan, loteriaren gai guztia kudeatzeaz arduratzen naiz. Orain Tin Tin klubaren gai guztia udara begira kudeatzen saiatzen ari gara, bi urte daramatzagulako Hondarribiko hondartzan beti bezala jarri ahal izateko baimenik gabe. Kirolarien gurasoekin ere harreman estua dut.

Zure lana askotan oharkabean pasatzen da?
Bai, baina umila naiz. Klub osoko zaharrena naiz, eta jende asko harritu egiten da hala ere lanean jarraitzea erabaki dudalako, baina pozik nago gaztez inguratuta lan egin ahal izateaz, oso ondo zaintzen bainaute.

Kudeaketa guztiez gain, polita al da kirolariekin zuzenean tratatu ahal izatea?
Bai, kirolariekin eta gurasoekin egunero aritzen naiz. Gauza asko hitz egiten eta kontatzen dizkiogu elkarri, eta horrek esperientzia partekatzeko aukera ematen digu. Urte asko daramatzat lanean, baina, lanaz gain, badakit zer den seme-alaba nerabeak izatea edo zein zaila izan daitekeen batzuetan ikasketak eta igeriketa uztartzea. Esperientzia honek aukera ematen dit gurasoei animoak emateko eta dena gertatzen dela ikustarazteko.

Horretarako zure bi alabekin izandako esperientzia bereziki lagungarria izango da?
Bai, azkenean garai batzuk besteak baino konplexuagoak dira. Gazteak direnez, beste kezka batzuk izaten edo gehiago tartekatu nahi izaten dituzte, baina igeriketa oso gogorra da. Onena da klubaren barruan ere adiskidetasuna lortzen dutela, eta normalean larunbatetan lehiatzen direnez, gero elkartu eta zinemara joateko edo buelta bat emateko aprobetxatzen dutela. Nik zorte handia izan dut, adin zail horietan alabei ez baitzaie asko gustatu gauez irtetea, eta oso arduratsuak izan dira hurrengo egunean entrenatzera edo lehiatzera joateko orduan.

Karguan hainbeste urte eman ostean, klubaren bilakaeraren lekuko izan zara?
17 urte daramatzat garbigailu berean eta denbora horretan 5 presidente ezberdin ezagutu ditut. Gabriel Olazabal sortzailearekin hasi nintzen, Antxon Lecaroz, Santi Oiarbide, Xabier Zuazu eta orain Ane Saseta txapeldunarekin.

Urte hauetan guztietan Irunen igeriketaren presentzia asko aldatu al da?
Zoritxarrez, kirol gutxitua da eta ez zaio behar duen garrantzia ematen. Uste dut ez dela baloratzen gure kirolariek entrenatzen duten guztia eta ahalegintzen diren guztia. Presidente bakoitzak une on eta txarretan kudeatu behar izan du kluba. Orain pandemiarekin une nahiko txarra igarotzen ari gara, baina klub guztien antzekoa gertatzen ari zaiela iruditzen zait. Jarrera positiboa izatea eta aurrera begiratzea besterik ez zaigu geratzen.

Nabaritu duzu urte hauetan guztietan emakumeen presentzia hazi egin dela kirolaren munduan?
Bai, hori argi dago. Gaur egun, urrutira joan gabe, emakume bat da klubeko lehendakari postua betetzen duena, eta zuzendaritza batzordea hainbat emakumek osatzen dute. Nire ustez, gaur egun emakumeak askoz gehiago inplikatzen dira kirol gaietan, eta uste dut hori oso borrokalariak garelako gertatzen dela.

Nola eragin dio pandemiak kirol-kluben kudeaketari?
Hilabete asko eman ditugu Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteekin (ABEE). Zalantzarik gabe, eskola-umeak izan dira pandemiaren ondorioak gehien pairatu dituztenak, iaz ezin izan baitzuten ez entrenatu ez lehiatu. Bien bitartean, kirolari federatuek hondartzako entrenamenduetara itzultzeko aukera izan zuten eta gutxi geroago igerilekura itzuli ahal izan ziren. Kiroldegira itzultzeko ausardia izan genuenean, oso mugatuta egon ginen, kale bakoitzean 6 igerilarik entrenatzeko aukera besterik ez ditugu kuotak kobratu eta hori da gure oinarriaren zati garrantzitsu bat aurrera egiteko eta subentzio txikietara jo behar izan dugu. Dena den, pozik gaude, igerilari gehienek gurekin jarraitzen baitute, eta baja gutxi izan dira. Egia esan, hau familia-klub bat da, ez dugu elkar engainatuko.

Jendeak eskertzen du Bidasoa XXIek klub gisa funtzionatzen jarraitzea?
Ikastea ez ezik, garrantzitsua da gazteek kirolen bat egitea. Ez dugu ahaztu behar Bidasoa XXI kluba ohorezko dibisioan dagoela eta Espainiako laugarren eta bosgarren klub onenen artean gaudela. Hori esatea oso erraza da, baina ez dakit Irunen hori benetan baloratzen den.

Zein kirol egoeratan dago orain Bidasoa XXI?
Elkarrizketa hau egin ondoren, kluben ohorezko banaketa kopari ekin genion. Hemen egiten den lehiaketarik politena da, proba bakoitzean bi igerilari lehiatzen baitira eta guztira 8 talde eta horietatik 2 lehen mailara jaisten dira eta lehen mailako bi talde ohorezko dibisiora igotzen dira. Horregatik, garrantzitsua da lehen 6 kluben artean sailkatzea. Aurten gure klubeko neskak eta mutilak lehiatuko dira, eta oso pozik gaude. Orain, Bidasoako igeriketa kluba izateaz gain, Errenteria, Oiartzun eta Lezoko igerilariak ere baditugu gurekin, eta horrek hazteko balio izan digu.

Uste duzu kluba prest dagoela etorkizuneko erronkei aurre egiteko?
Oso tristea da esatea, baina azken urte hauek hondamendi ekonomikoa izan dira klubarentzat, ez dugu ukatuko. Baina uste dut jendeak itxaropena duela eta datorrena datorrela aurrera egingo dugu. Beti izan behar da positiboa. Kanariar Uharteetan edo Mallorcan lehiaketak ditugu, eta lehiaketa horietan parte hartzeak diru asko suposatzen du, nahiz eta zati bat igerilariek ordaintzen duten, baina aurrera egin behar dugu eta ez dugu itxaropena galdu behar.

Javier Sagarzazu, margolaria:

“Koadro bat ez da inoiz amaitzen”

Javier Sagarzazu margolaria bere abiapuntura itzuli da. Otsailaren 20ra arte “Begirada bat denboran” erakusketa ikusgai egongo da Menchu Gal Aretoan. Izan ere, eraikin horretan bertan jaso zituen artistak bere lehen pintura eta marrazki eskolak. Erakusketan Sagarzazuren azken lanak 1960ko hamarkadako lehen sorkuntzen alboan ikusi ahalko dira.

Menchu Gal Aretoko bi gelak otsailera arte margolari Hondarribiarraren lanekin beteko dira. Guztira, hogeita hamar olio eta akuarela koadro bildu dira bertan, 1960tik aurrera artistak egindako beste lan batzuekin batera. Gainera, espazio horretan bi beira arasa jarri dira, eta haietan, beste lan batzuk ere ikusi daitezke, hala nola, Sagarzazuren bidaia koadernoak edo artistak bere bidean jaso dituen sari eta goraipamenak.

Miguel Ángel Páez Lehen Alkateordeak azpimarratu duenez, Javier Sagarzazuren lana Menchu Gal aretoan izatea “luxua da”. Lehen Alkateordeak azaldu duenez, “Sagarzazu izena ezinbestekoa zen horrelako instalazio batean, are gehiago kontuan hartuta Javierrek zer-nolako harremana zuen Menchu Galekin eta bertako beste margolari batzuekin, hala nola Montes Iturriozekin edo Gracenearekin”.

Erakusketa otsailaren 20ra arte egongo da ikusgai, ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara egongo da zabalik erakusketa, eta igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era. Abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean, ordea, aretoa itxita egongo da. Gainera, abenduko azken bi igandeetan zehar artista Menchu Gal aretoan izan zen erakusketa ikustera hurbildu ziren bisitarien bere lanen azalpenak emateko. Javier Sagarzazuk adierazi duenez, “bisita gidatuak ez zaizkit gehiegi gustatzen, nahiago dut nire erakusketetako bisitariekin lasai hitz egin”.

Bidasoako paisaiak nagusi

Erakusketa osatzen duten koadroen artean paisaiak nagusitzen dira. Javier Sagarzazuk erakusketaren aurkezpenean onartu duenez, “paisajista izango naiz beti, ez diot inoiz hemengo paisaiak margotzeari uko egingo”. Artistak irribarretsu azaldu duenez, erakusketarako bidean, Amuten gelditu eta padurak estaltzen zituzten lainoak margotzeko gogoarkin geratu da. Era horretan, koadro gehienetan Txingudi eskualdeko paisaiak dira nagusi. Esaterako, Junkal Eliza, Arma plaza, Hondarribiko gaueko margolan bat, Ondarraitz hondartza edo Higer lurmuturra Hendaiatik ikusia. Nolanahi ere, bazter ezagunen artean, Venezia, Madril edo Donostiako paisaiak ere ikusi ahalko dira.

Paisaiez gainera, Monet edo Velázquezi buruz Sagarzazuk egin dituen bertsio libreak ere eskaintzen ditu erakusketak, bai eta gaur egun bere ibilbide artistikoa osatzen duten beste adierazpen ez-figuratibo batzuk ere. Lanen artean, Cristina koadroa ere nabarmendu behar da, neurri handiko olio pintura (130x190 cm), San Telmo Museoak erakusketa honetarako utzia. VIII. BMW Pintura Lehiaketan saritu zuten lana, eta ohorezko aipamena jaso zuen 1993an, eta Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademian erakutsi zuten.

Iraganera bueltan

Sagarzazu Menchu Gal aretoa hartzen duen eraikinera itzultzearekin bere hasierako puntura itzuli dela dirudi. Izan ere, 14 urte besterik ez zituenean eraikin horretan kokatutako eta “Sindi” izenez ezagutzen zen lanbide-hizketako eskolan ikasi baitzuen. 1953tik 1961era bitartean egon zen eskola hori Urdanibia plazako eraikinean. Bertan Sagarzazuk artearen inguruko lehen ezagutzak bereganatu zituen. Eraikina aipatu eta margolariak azaldu duenez, “hemen lankide bat ezagutu nuen, Felipe Iguiñiz, beste ikaskide askoren artean”. Javier Sagarzazuk garai hartako oroitzapen onak dauzkala adierazi du, adibidez Monolo Berroa edo Gaspar Montes maisuak ezagutzeko aukera izan baitzuen.

Menchu Gal, ordea, urte pare bat geroago ezagutu zuen. Sagarzazuk adierazi duenez, Menchu Gal ezagutzeak bultzada berri bat eman zion bere pinturari, orduan bere arte ezagutza oso oinarrizkoa baitzen. José Mensuro “Mensu” margolariaren bitartez Sagarzazuk Madrilen Hastapen Artistikoko ikastaro batean parte hartzeko aukera jaso zuen. 20 urte bete baino lehen, 1967. Urtean Lehen Sari Nazionala jaso zuen Madrilen “X. Arte Orientazio Ikastaroa” sariketan.

“Begirada bat denboran” erakusketaren inaugurazioa aprobetxatuz, Javier Sagarzazuk bere ibilbide osoan zehar familiarengandik jasotako babesa eskertu du, “babes hori oso garrantzitsua baita artistentzat”. Orain artistak 75 urte ditu eta margolariaren hitzetan, “erakusketa honekin nire bizitzako etapa bat amaitzen dut eta gauzak lasaiago hartu behar ditut orain”. Hala ere, indarrak falta ez zaizkion bitartean margotzen jarraitzeko intentzioa du.

Zentzu horretan, aurretik egindako lanak errepasatzea eta ukitu berriren batekin emaitza borobiltzea gustuko duela onartu du. Esaterako, erakusketan ikusgai dagoen Irungo udaletxearen obra amaitu gabe dagoela azaldu du, “ukitu batzuk” falta baitzaizkio. Sagarzazuk datozen bi urteetarako lanik falta ez zaiola azaldu du eta lanean jarraitzeko aukera hori bereziki eskertu du egun arteak pandemiaren ondorioz bizi duen egoera kontutan hartuta. “Garai zailak dira artearen munduarentzat, pandemiaren ondorioz arte galeria ugari itxi baitira”.

Erakusketak

Javier Sagarzazuk lehen erakusketa bere jaioterrian 1966an egin zuen. Harrezkero, banakako ehun erakusketa baino gehiago egin ditu, besteak beste, Hondarribian, Bergaran, Bilbon, Madrilen, Gasteizen eta Baionan, Miarritzen, Donostian, Iruñean, Ordizian, Valentzian, Zaragozan eta Zarautzen. Beronen, Caracasen edo Parisen ere erakutsi du, baita Bordelen, Londresen, Munichen edo Vienan ere, azken horietan “Cervantes Institutuaren” bidez.

EGUZKITZA LH3

Aurten eguzkitzako 2 zikloko ikasleek teknika berri bat ezagutu dute PIXEL-ART, gustura ibili dira lanean eta hau bezalako irudiak osatu dituzte ea zuek gai zaretaen aldamenko orrian hau kopiatzeko. Animo!!!



Denbora-pasak

7 hitz: Gabonak II

S	A	N	T	O	L	E	N	T	Z	E	R	O	O
F	Z	J	X	O	K	C	U	F	I	Y	S	E	L
R	V	Z	I	G	L	V	J	A	Z	M	M	J	Z
W	S	Y	M	W	K	U	J	M	V	F	B	G	K
E	B	J	I	Q	O	B	K	I	T	W	G	W	H
R	M	O	N	L	T	Y	L	L	U	O	T	Z	F
R	Q	S	I	R	I	H	D	I	G	W	A	W	N
E	M	T	A	C	L	D	A	Q	L	R	P	E	Y
G	T	A	W	N	I	X	B	U	O	G	J	T	T
E	R	I	A	G	O	X	Z	Z	A	H	N	H	V
A	R	L	J	G	I	T	N	J	N	C	H	Y	D
K	Y	U	O	G	J	A	I	O	T	Z	A	Q	S
Y	Y	V	G	N	D	S	V	X	M	Y	A	T	H
R	J	B	H	U	M	U	L	J	L	H	X	Z	L

Tximinia, kotilioi, famili, jostailu, jaiotza, Olentzero, Erregeak

		3			4		9	6
	6							
4					2			
2		7	8		6		3	
		5	4					
				2			1	
				3	8	4		5
6			2			1		3
3	7		6		5	2		9

EZ GINEN GOGORATZEN DUGUNA

Egilea: Xabier Isasi Balanzategi

Doinua: ETAren su etenetik

1
Laurogei urte inguru
edadeko gizona zen
Kalean gora ta behera
noraezean zebilenni
ikusi ninduela
hasi zitzaidan galdetzen:
jauna arren badakizu
ni non bizi ote naizen
itaun harek hunkituta
zer nahasketa zer eromen
izanaren oinarriak:
adimen eta oroimen
horiek gabe bizi ahal
gaitezke orain eta hemen?

2
Gizonak itxura ona
sikieran kanpokoa
dotore jantzita baina
oroimen galdutakoa
zenbat buruhauste eta
zer pentsatzeko nahikoa
gogoramenaren falta
hara zer falta gaiztoa
memoria galdu eta
horrek ekarritakoa
ez etxerik ezta ere
norbera izandakoa,
pertsona ote daiteke
oroimenik gabekoa?

3
Oraina amaitu ondoren
zain dugu etorkizuna
herenegun gero atzo
bihar, etziko eguna
atzo ginena garela
hori da denen zentzuna
egunero esnatzean
piztu berriz nortasuna
izanaren jarioan
goizeroko erantzuna
argitu behar da eta
iraganaren iluna
artean ez ginelako
gaur gogoratzen duguna

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

4
Izatekotan gu gara
izan zirenen ordaina
usteagatik garela
gure arbasoen haina
ustez gainditu dugula
prestutasunaren gaina
iraganari kiratsa
gurea berriz usaina
iragana itsusia
gure garaia liraina
nonbait arbasorik gabe
bizi daitekeela baina
ostuz gero iragana
kentzen digute oraina

5
Eskuko telefonoak
zerbait argitu lezake
agenda ireki eta
Miren, Aiert edo Maite
seme-alaben izenak
suhi,errain edo emazte
banan banan deika hasi
Jon, Ane eta Arrate
azken horrek hartu zuen
agian jakin dezake:
esan zigun kalera jo
sotoz soto, atez ate
aurkitu genuen eta
hara zein poz eta bake!

6
Zelan bereiz ditzakegu
haritz, urki eta ezpel
esateko: hau zein argi!
bestea, berriz, zein ergel!
bizitza hauskorra dela,
gauza leun eta zimel
udaberriko hostoak
udagoieneko orbel
gogoratzean alaitsu
oroimenik gabe goibel
gaixotasun hori baino
bada zerbait bezain krudel
egunero pentsantzen dut
nola biziko da Manuel?

EL PILAR DBH4

TEKNOLOGIA ETA GAZTEAK

Teknologiaren erabilera eta abusua oso azkar ezarri da gure artean azken urteotan, are gehiago gazteengan. Gaur egun teknologia ezinbestekoa da, zer izango litzateke gurea teknologiarik ez balego? Seguru asko ez zen ezer gertatuko, ez baikenuen ezagutuko. Baina honezkero kentzen badigute, ez al da hala?

Neurri batean, teknologia oso lagungarria izango zaigu, batez ere Interneten zerbait kontsultatu behar badugu. Noizean behin bideo-jokoren batean jolasteak ere ez digu kalterik egingo; izan ere, batzuetan ondo dago errealitatetik kentzea. Gainera, teknologia oso lagungarria izango da norbaitekin komunikatzeko. Gaur egun, komunikazio-aplikazio asko ditugu, eta horiek doakoak dira (edo gehienak), hala nola WhatsApp, Instagram edo Snapchat. Horietan, nahi duzun pertsonarekin txateatu ahal izango duzu, edo bideo-deia ere egin ahal izango duzu, beste gauza askoren artean.

Beraz, ikus dezakegun bezala, teknologia ona da, betiere adikzio bihurtzen ez bada. Teknologiaren mundu honekiko mendekotasun handia duten helduak egon arren, gu, gazteok, nabarmentzen gara, gu izan baikara mundu hori ondoan dugula hazi garenak, eta hala egiten jarraituko dugu. Jan egin behar dugunean teknologiarekin harremanetan egotea teknologiari ematen zaion abusuaren adibide argi bat da. Etxean ordenagailuarekin jolasten geratzea, kalera irten beharrean, beste bat da. Eta ez dezagun ahaztu Internet zein txarra izan daitekeen, guztiz gehiago nerabeentzako, ez baitakigu zein arriskutsua den Interneten ezagutzen dugun jendearekin hitz egitea, agian gezurretan ari zaigun jendearekin. Ez dakigu benetan esaten dutenak diren edo erabat desberdina den beste pertsona bat.

Internetekiko mendekotasuna izatea ere oso arriskutsua izan daiteke, batez ere zure osasun mentalerako. Zure familiari eta inguruko jendeari ere eragingo die. Izan dira etxetik irteteari utzi diotenak, edo familiarekin eta lagunekin hitz egiteari utzi diotenak, egunez egun pantaila baten aurrean egon ahal izateko bakarrik.

Orduan, merezi du horrela egotea? Ez, ezta? Nire ustez, denak du bere momentua. Ez da beharrezkoa egun osoa pantaila baten aurrean egotea, zure bizitzan askoz gauza politagoak daude egiteko. Egun batean kontsolarekin jolastu nahi duzula? Bada, aurrera, inork ez dizu eragotziko, hasieran esan dudan bezala, noizean behin dibertitzea ondo dago, adikzio bihurtzen ez den bitartean. Irten zaitez zure familia eta lagunekin kalera eta gozatu, teknologia gabe ere ondo egon gaitezke eta!

Elena Jaramillo (DBH 4)

Aintzane Galarzak forma ematen die ideiei oihal eta harien bidez

Orain dela bi hilabete Aintzane Galarzak bere tailer propioa ireki zuen Uranzu kaleko 21. zenbakian. Galarza Costura izenpean, Aintzanek era askotariko osagarriak sortzen ditu, beti bezeroen eskakizunetara egokituz. Gainera, arropa atontzeko konponketak ere egiten ditu. Galarzak 2022an josketa ikastaroak antolatzen hasteko asmoa duela aurreratu digu.

Noiz sartu zinen joskintzaren munduan?
Duela sei urte makillatzaile lanetan ari nintzen, makillaje eta karakterizazioko ikasketak egin bainituen. ETBko telesailen baterako makillatzaile lanetan aritu nintzen. Une horretan, modaren eta joskintzaren gaia deigarria egiten hasi zitzaidan, eta, azkenean, patroigintzako eta modako goi-mailako ziklo batean izena ematea erabaki nuen. Han ikasi ahal izan nuen guztia asko gustatu zitzaidan. Gradua amaitzean praktika batzuk egin nituen eta oihal denda batean hasi nintzen lanean. Horri esker, oihalen mundua sakonago ezagutu ahal izan nuen, barietate asko eta ehun mota ezberdinak baitaude. Nire inguruko jendearentzat konponketa txikiak egiten hasi nintzenez, nire tailer propioa irekitzeko ideia bururatu zitzaidan.

Erraza izan zen zure kabuz tailer bat irekitzeko erabakia hartzea?
Hasieran beldur pixka bat izan nuen, ez bainekien zenbat bezero izango nituen. Honetaz bizitzeko adina bezero ez edukitzeak kezkatzen ninduen. Zorte handia izan nuen nire familiak laguntza handia eman zidalako. Nire tailerra gurasoena da. Horri esker, oraingoz ez dut alokairurik ordaindu behar, eta hori laguntza handia da. Adibidez, nire amak ile-apaindegi bat dauka, eta, haren bidez, bere bezero asko niregana etortzen dira konponketak egin diezazkiedan; beraz, bezero kopuru txiki bat behintzat baneukan ziurtatuta.

Jostea modan dago berriro?
Bai, erabat. Esango nuke duela urte batzuk gizartean, oro har, galdu egin zela josten ikasteko ohitura, gure amonen belaunaldira arte gertatu ez zena. Orain, ordea, jende askori josten ikasteko gogoak piztu zaizkio eta gero eta interes gehiago nabaritzen dut nire lagunen artean.

Beraz, enkargu asko jasotzen dituzu konponketak egiteko?
Bai horixe. Beti gauza bera gertatzen da. Arropa dendetan erosten dugu, eta arropa ez denez berdin egokitzen gorputz mota guztietara, beti beharrezkoa da konponketaren bat edo beste. Adibidez, jantzien baxua hartzea, estutzea edo zabaltzea dira gehien eskatzen diren konponketak.

Nolakoak izan dira lehen bi hilabeteak denda ireki zenuenetik?
Denbora gutxi igaro da denda ireki nuenetik, baina, egia esan, oso pozik nago. Oso eskertuta nago auzoan harrera bikaina izan dudalako. Jendea galdetzera gelditzen da edo dendan ikusgai ditudan artikuluak begiratzen ditu kanpotik. Nirekin hitz egiten dutenean, eskaintzen ditudan zerbitzu guztiez galdetzen didate eta asko hurbildu dira konponketak eskatzeko.

Zure produktuen artean, zeintzuk dira gehien saltzen direnak?
Asko saltzen dira diru-zorroak edo nezeserrak. Koleteroek ere interes handia sortzen dute, oso erraza baita eskumuturrean jartzea eta beti eskura edukitzea ilea lotu nahi duzunerako.

Jendeak eskuz egindako gauzen atzean dagoen lana baloratzen du?
Batzuek bai eta besteek ez. Josten dakien jendeak badaki zenbat denbora behar den artikulu hauetako bakoitza sortzeko, beraz, ez dira kexatzen. Besteek, ordea, prezioa ikusterakoan garestiegia iruditzen zaie. Ulergarria da arropa, oso merke erostera ohituta gaudenez, konponketa erosketa baino garestiagoa denean jendea larritzea.

Aurtengo Gabonetan Zabaltza plazako azokan parte hartu duzu. Nolakoa izan da esperientzia?
Oso ona. Azokan parte hartzeko aukera eskaini zidatenean, ez nuen bitan pentsatu eta nire proiektua ezagutarazteko aukera bikaina iruditu zitzaidan. Era honetan, auzoko jendeaz gain, Irungo beste hiritarren aurrean nire burua aurkeztu eta zer egiten dudan erakusteko aukera eman dit.

Gainera, zure produktuetako asko opariak egiteko egokiak dira, ezta?
Bai, produktu berriak sortzen ari naiz etengabe. Gainera, artikulu pertsonalizatuak egiten ditut, beraz, jendeak eskaera bereziren bat daukanean, niregana hurbildu daiteke. Adibidez, jendeak beren tablet edo ordenagailu eramangarri propioetara egokitzen diren zorroak eskatzen ditu. Laburbilduz, era askotariko osagarriak sortzeko prest nago. Niretzat oso garrantzitsua da kotoi organikoak erabiltzea eta OEKO TEX ziurtagiria duten oihalak erabiltzea. Zentzu horretan, ahalik eta material gutxien gastatzen saiatzen naiz, baina kalitate handiko materiala izatea gustatzen zait.

Egun josketa tailer batentzat sare sozialetan presente egotea garrantzitsua da?
Bai. Nik zorte handia dut nire ahizpak diseinu grafikoko ikasketak egin dituelako eta sare sozialen kudeaketarekin asko laguntzen didalako. Oso garrantzitsua eta zaila da. Izan ere, egunero zerbait partekatu behar duzulako jendea zutaz oroitu dadin eta askotan ideak falta zaizkizu.

Non bilatzen dituzu zure proiektuetarako ideiak?
Instagram eta Pinterest sare-sozialak asko erabiltzen ditut. Bestetik, kaletik gustuko dudan zerbait ikusten dudanean, gauza bera sortzen saiatzen naiz. Produktuak hobetzeko eta jendearentzako erabilgarriago egiteko ideien bila nabil beti.

2022. urterako desioren bat?
2022ko otsailetik aurrera josketa ikastaro txikiak antolatzen hasi nahiko nuke. Nire lokalean ez dut espazio gehiegirik, baina uste dut aldi berean hiru edo lau pertsonari irakasteko aukera izan dezakedala. Jende askok ikastaroak eskatu dizkit jada eta maila desberdinetako ikastaroak eskaintzeko asmoa dut.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Eskatu zure graduondoko beka

Atzerrian ikasteko graduondoko beka bat eskatu nahi duzu eta laguntza behar duzu eskabidea aurkezteko?

Atzerrian ikasteko graduondoko bekak eskatu nahi dituztenak eta dagoeneko lortu dituztenak lotzen dituen online plataforma berri bat, doako mentoretza pertsonalizatua eskaintzen duena.

"Accede a becas" ekimena La Caixa, Fulbright, Rafael del Pino, Ramón Areces eta antzekoetako bekadunek sortu dute.

Nazioarteko graduondoko beka bat eskatzeko prozesurako doako laguntza nahi baduzu, eman izena www.accedeabecas.org webgunean eta bete ikasleen formularioa. Zure antzeko bekadun ohi batekin parekatuko zaituzte, eta interesatzen zaizun beka eskatzeko prozesuari buruzko zalantzak argitzen lagunduko dizu, eta bere esperientzia guztiaren berri emango.

Prestatu zaitez lana bilatzeko

Bidasoa Bizirik sozietate publikoak, El Espazio ekipamenduak eta Lanbidek lana bilatzen hasteko baliabideak eta hainbat doako ikastaro eskaintzen dituzte.

Lana bilatzeko tailerrak:

- Lana eta prestakuntza bilatzeko online baliabideak

- Nola egin aurre lan-elkarrizketa bati

- Lana Internet bidez bilatzea

- Izena eman ABLEetan

- Enplegua bilatzeko oinarrizko teknologia

- Hobetu zure curriculum vitaea

- Eguneratu Lanbideren CVa eta sartu zure CV pertsonala

- Atzerriko tituluak homologatzea eta baliozkotzea

Informazioa: Ikastaroen inguruko informazioa elespazio.com webgunean aurkituko duzu, jarduerak eta ikastaroak atalaren barruan.

Ikastaro guzti hauek dohakoak dira!

2022ko Irungo Inauterietako Kartel Lehiaketa

Irungo Udalak 2022ko Irungo Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketarako deialdia egin du. Edozeinek parte hartu ahalko du lehiaketan eta lan bakarra aurkeztuko du lehiakide bakoitzak.

Lanen aurkezpena: Lanak paperezko euskarrian aurkeztu beharko dira 70 x 50 cm-ko tamainarekin eta formatu bertikalean. Gainera, kartelaren neurri bereko euskarri zurrun baten gainean muntatu behar dira lanak. Paperean aurkezteaz gain, irudia entregatu behar da kartelaren izenburua duen CD edo USB batean (JPG edo PDF), bi erresoluziotan: bata 300 ppp.-koa 70x50 cm-ko tamainarekin inprentara bidaltzeko, eta bestea erresoluzio baxuagoan webgunerako.

Kartelean agertu beharreko testua honako hau izango da: IRUNGO INAUTERIAK 2022 CARNAVALES DE IRUN.

Saria: 600,00 euroko sari nagusia emango da eta 200,00 euroko akzesit bat. Sariak ez dira bateragarriak izango. Sarien zenbatekoei PFEZren atxikipena aplikatuko zaie, indarrean dagoen legeak agintzen duen bezala.

Epea: 2021eko abenduaren 28tik 2022ko urtarrilaren 14ra (biak barne).

Irun zure Eguberrietako hiriburua

Irun, zure Eguberrietako hiriburua, goiburu horrekin, hiria prest da egun hauek bizitzeko, kaleak jende ororentzako jarduerez beteta egongo dira eta. Ekintza ugari izango direnez, egitarau zehaztua Irungo Udalaren www.irun.org webgunean kontsultatu daiteke.

Eguberrietako herrixka: Sarjia parkean Gabonetako herrixka bat sortu da eta urtarrilaren 9ra arte egongo da bertan. Egunero hainbat ekintza egingo dira bertan Trikuharri, Bidasoako erraldoiak eta beste entitate batzuek antolaturik. Egitarau zehaztua udalaren webgunean dago.

Izotz pista: Izotz pista aurten Ficoba erakustazoka pareko lautadan kokatuta dago. Urtarrilaren 16ra arte patinatu ahal izango da pista horretan, eta egun jakinetan girotzeko emanaldiak ere izango dira. Gainera, izotz pistara iritsi ahal izateko udalak Ficoba eta hiriko erdigunea lotuko dituen autobus bat antolatu du. 13 urtetik beherakoek 2 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek, berriz, 3 euro. Hala ere, 5 sarreretako bonoa prezio merkeagoan eskuratu ahalko da. Izotz pistaren ordutegia oso aldakorra denez, Irungo Udalaren webgunean kontsulatu daiteke.

Txirrista erraldoia: Txirrista erraldoia aurten Pio XII. plazan jarri da eta urtarrilaren 16ra arte egongo da martxan. Bidaia bakoitzak euro bateko prezioa izango du eta, izotz pistarekin batera, sarrera bikoitza merkeago lortzeko aukera dago. Txirristaren ordutegia udal webgunean kontsultatzea komeni da

Liburutegiko ikasketa gelaren ordutegia zabaldu da

2021eko abenduaren 23tik 2022ko urtarrilaren 7ra IGazte itxita egongo da.

2022ko urtarrilaren 10ean irekiko dugu berriro bulegoa

Barkatu eragozpenak!



Urtarrilak

2

Urte Berriko Kontzertua

Zer: Luis Mariano Orkestrak, José Ferreira Loboren zuzendaritzapean, Straussen polkak, martxak eta balsak eskainiko ditu.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 21,90 euro, bazkideentzako sarrera murriztua 15,90 euro eta gazteentzako sarrera 5,90 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

4ra arte

Erakusketa

Zer: BAF 7301 elkarteak antolatua tren maketen erakusketa.

Non: Palmera Montero Gunean.

Ordutegia:
17:30etatik 20:00etara: abenduak 20, 21, 22, 23, 27, 28, 29, 30 eta Urtarrilak 3 eta 4.

11:30etatik 13:30etara: abenduak 26 eta urtarrilak 2.

Sarrera: Doan.

Oharra: Abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean erakusketa itxita egongo da.

5

Maskara tailerra

Zer: Oiasso museoak maskara erromatarrak egiteko tailerrak eskainiko du, garai klasikoko antzerki erromatarreko maskaren estetikari jarraituz.

Non: Oiasso Erromatar museoan.

Ordua: 11:00etan.

Prezioa: 4 euro.

Sarrera: Mugatua, 943 63 93 53 telefonoan erreserba egin behar da.

7

Jandro magoa

Zer: Jandro magoak "descabellado" ikuskizun magikoa eta dibertigarria eskainiko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 15 euro. Langabezian daudenentzat, gazte txartelarekin, familia ugarientzat eta 14 urtetik beherakoentzat 10 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

8

Pintura lehiaketa

Zer: Oiasso museoak Oiassortu pintura lehiaketa antolatu du haur, gazte eta helduentzat.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 10:00etan.

Prezioa: 2 euro.

Oharra: Osasun neurriengatik bakoitzak bere materialak ekarri behar ditu (arkatzak, margoak, etab.) .

9ra arte

Ipuinetako erakusleihoak

Zer: Hiriko hamar saltokietako erakusleihoetako QR kodeak eskaneatuz, erakusleihoko mekanismo robotizatua aktibatu eta off ahots bidez ikusten dena azalduko du.

Kontakizuna: Tom Sawyer-en abenturak, Mark Twain idazle estatubatuarraren lan ezaguna, ipuinaren 10 eszena ikustera emango dira, Antonio Lorente-ren ilustrazioekin.

Dendak: Ttipi store, Muebles Bidasoa, Chocolates Irun, Tartufa, Minka, Federopticos Uranzu, Bost Woman, Pasitos calzado infantil, Ikhor boutique eta Fonseca.

Hizkuntza: Euskaraz eta Gazteleraz

Denbora-pasen emaitzak

S	A	N	T	O	L	E	N	T	Z	E	R	O	O
F	Z	J	X	O	K	C	U	F	I	Y	S	E	L
R	V	Z	I	G	L	V	J	A	Z	M	M	J	Z
W	S	Y	M	W	K	U	J	M	V	F	B	G	K
E	B	J	I	Q	O	B	K	I	T	W	G	W	H
R	M	O	N	L	T	Y	L	L	U	O	T	Z	F
R	Q	S	I	R	I	H	D	I	G	W	A	W	N
E	M	T	A	C	L	D	A	Q	L	R	P	E	Y
G	T	A	W	N	I	X	B	U	O	G	J	T	T
E	R	I	A	G	O	X	Z	Z	A	H	N	H	V
A	R	L	J	G	I	T	N	J	N	C	H	Y	D
K	Y	U	O	G	J	A	I	O	T	Z	A	Q	S
Y	Y	V	G	N	D	S	V	X	M	Y	A	T	H
R	J	B	H	U	M	U	L	J	L	H	X	Z	L

7	2	3	1	5	4	8	9	6
5	6	1	9	8	7	3	4	2
4	8	9	3	6	2	7	5	1
2	1	7	8	9	6	5	3	4
9	3	5	4	7	1	6	2	8
8	4	6	5	2	3	9	1	7
1	9	2	7	3	8	4	6	5
6	5	8	2	4	9	1	7	3
3	7	4	6	1	5	2	8	9

all4móvil

Prezioak konparatuko ditugu zure ordez

Lortu tarifarik onena telefonia mugikorrean, finkoan, interneten eta telebistan

all4movil.com

Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!

652 11 85 97 / 843 63 08 80

all4movil@all4movil.com